

| AUTOMOBILA

gida
lasterra



LAGUN ARO

8

Ibilgailuan eraman beharreko aseguru-dokumentazioa

Zure aseguru-poliza kontratatzean, zure ibilgailuan beti eraman behar duzun ondorengo dokumentazio hau jaso duzu:




Baldintza Orokorrak, eta bertan biltzen dira Automobil Aseguruan merkaturatutako berme guztien klausula aplikagarriak.

Baldintza Partikularrak. Bertan kontsulta ditzakezu zure ibilgailu-polizan kontratatuta dituzun bermeak edo estalduramugak.




Adiskidetasunezko Istripu Deklarazioa. Erabil ezazu beti istripua gertatuz gero, ezbeharraren datuak jasotzeko. Inplikaturako aseguru-etxeen artean istripuaren izapidetzea arintzeko aukera ematen du.



Bonus/Malus Sistemaren Azalpena.
Bertan deskribatzen da hobari-sistemaren funtzionamendua.

Lagun Aro Txartela. Zenbaki hau zure mugikorrean gordetzea gomendatzen dizugu.



Karta Berdea. Europar Batasunetik kanpo zure ibilgailuarekin bidaiatzean aseguruaren frogagiri gisa balio du. Kasu horietan, kome-ni da alde zure aurretik ohiko zure bulegoarekin edo bitartekariarekin harremanetan jartzea, bidaiatu behar duzun herrialdeko estaldura-hedadurari buruzko informazioa jasotzeko, eta halakorik ez bazenu, eskatzeko.

Indarrean dagoen ordainagiria.
Aseguru-prima ordaindu izanaren frogagiria da. Banku-ordainagirik ere balio dute. Dokumentu hau beti autoan eraman behar duzu dagokion aseguruamendu egokia frogatzeko zirkulazio-agintarien aurrean, halakorik eskatzen badizute.

